

Troisième dimanche après Pâques C 1 Mai 2022

Chers frères et sœurs, nous embarquons aujourd'hui sur le bateau de Pierre. « **Allez au large** », invite le Christ à ces pêcheurs qui ont passé toute la nuit sans rien prendre. Et chose étrange les pêcheurs font confiance au terrien inconnu. De jour les poissons voient le filet et il est difficile de pêcher. Mais voilà que les hommes allongent les avirons et hissent la voile pour aller au large et c'est une pêche merveilleuse. Jean reconnaît que le terrien c'est Jésus lui-même !

Les apôtres pensaient que tout était fini après la mort de leur maître. Ils abandonnent Jérusalem et retournent à leurs occupations. Et Jésus vient les rejoindre au milieu de leur travail pour les aider. Aujourd'hui 1^{er} mai, nous pensons à tous les travailleurs en mer et à terre. Nous nous rappelons de toutes les luttes pour défendre la dignité et la justice au travail. C'est aussi le souci de l'Eglise, celui de mettre l'homme avant le profit.

Nos pêcheurs de Tibériade sont là avec un filet rempli de 153 poissons. C'est le chiffre de tous les peuples connus au temps de Jésus. Cette indication signifie que Jésus vient pour tous les peuples de la terre. Sur tous les continents, dans beaucoup de ports comme le nôtre et ceux du littoral basque des chrétiens agissent dans le cadre de l'Apostolat de la mer, de la Mission de la Mer. Les gens de mer, hommes et femmes vivent des valeurs très riches. Un aumônier du port d'Anvers m'avait dit « Si tu montes à bord des bateaux avec l'idée d'y mettre Dieu, tu t'apercevras vite qu'il y est déjà ! » Notre mission consiste à faire route avec les gens de mer, à discerner et célébrer les trésors qu'il y a dans leur cœur !

Apportez ces poissons ! C'est le deuxième appel du Christ. Il invente une nouvelle eucharistie au bord de la mer. Dans ses mains les pains et les poissons se multiplient pour devenir nourriture pour toute l'humanité. Le psaume 106 a ces belles paroles « *ceux qui ont embarqué pour gagner leur vie au large ont vu les hauts faits de notre Dieu !* » Nous allons à la messe avec les trésors et les valeurs qui sont dans nos cœurs et nous rendons grâce à Dieu. L'eucharistie commence dans nos chemins de vie ; elle nous fait 'pêcheurs d'humanité', porte-paroles de valeurs humaines. Nous nous rappelons que nous sommes gérants responsables de la terre, de la mer, de notre planète que nous devons protéger pour le bien de tous, en pensant aux générations à venir.

SUIS-MOI voilà le troisième appel. Par trois fois Pierre dit à Jésus « *oui je t'aime !* » car trois fois il a renié son ami et maître. L'Eglise d'aujourd'hui est secouée par la sécularisation croissante de la société, par ses divisions internes, selon notre pape François elle n'est pas assez ouverte.

En nous invitant chacune et chacun à Le suivre, le Christ ouvre une alternative. Vivre en disciples par amour, dans le cœur. Prendre le temps de l'écouter et le rejoindre là où il nous attend au large, dans l'humanité. Prendre notre part pour lever les filets du Royaume. Il y a du travail pour tous. Pour hisser le filet de la solidarité, de la dignité, du bonheur des familles, le filet de la prière et de l'Eglise, on a besoin de tous, enfants, jeunes, femmes, hommes personnes âgées, malades et personnes en bonne santé, croyants ou incroyants, on a besoin de personnes de bonne volonté.

A plusieurs de la Mission de la mer le Christ nous a dit un jour « *va au large pour savoir si j'y suis !* » Nous y sommes allés et nous l'avons rencontré ! Amen

Mikel Epalza

Bazko ondoko Hirugarren igandea C 2022 Maitaza 1

Haurride maiteak, gaur embarkatzen gira Petriren txalupan. Zoazte itsas zabalera erran zion Jesusek Petri, gau osoa iragan ondotik arrainik harrapatu gabe. Eta arrantzaleek kasu egiten zioten lehorreko gizonari ! Egunez arrainak sarea ikusten dute eta zaila egiten da arrantzatzea. Bainan arraunak luzatuz, bela zabalduz badoazte urrutira eta sekulako arrantza egiten dute. Momento hortan Joanes ohartzen da Jesus dela delako lehortar hura !

Apostoluek uste zuten Jesus hil eta dena bukatua zela ; hortakotz Ierusalame utzi eta heien ofiziotara itzuli ziren. Eta Jesus heien gana urbiltzen da ; laguntzen ditu heien itsasoko lanetan. Gaur Maiatzaren lehenean orroitzen gira bai itsasoan bai lur gainean lanian ari direnetaz. Ospatzen da langileen pesta ; gogoan dugu zenbat borroka egin behar izan den langile guzien duintasuna, zuzentasuna errespetatzea. Jesusen Eliza hildo berdinatik ari da, nahiz ezarri gizona sosaren, eta probetxoaren gainetik.

Beraz hor daude gure marinela sarea arrainaz beterik ; badira 153 arrain. Omen Jesusen denboran ezagutuak ziren herrialdeak 153 ziren. Horrek eran nahi du Jesus populu guzien laguntzera heldu zaulako. Kontinente guzietan portu ainitzetan giristinoak biltzen gira Itsas Apostoladutza bultzatzeko. Hala da portu hontan bai eta euskal herriko portuetan. Arrantzaleek eta beraien emazteek bizitzen dituzte balore biziki aberatsak. Flandriako Antwerpen portuko apez adixkide batek erran zautan « *joaiten bazira untzietara Jainkoa ezartzeko ideiarekin, aski fite ohartuko zira Jainkoa jadanik hor dela !* » Hortan da Itsas misioaren lana : bide egin itsasoko jendeekin eta beraien bihotzetan diren altxorrak ikertu eta ospatu.

Ekazkizue zuen arrainak. Hau dugu bigarren mezua. Itsas bazterrean, Jesusek asmatzen du eukaristia berri bat. Bere eskuetan ogi eta arrainak ugaritzen dira, denendako janari bilakatuz. 106 salmoak derauku « *ontzietan itsasoratu zirenek, ogi bidea ur handietan zutenek, ikusi zituzten Jaunaren ekintza harrigarriak* ». Mezara goaz gure bihotzetan ditugun altxorrekin, baloreekin eta eskertzen dugu Jainkoa! Eukaristia hasten da gure bizibideetan; egiten gaitu giza arrantzale, giza baloreen zaintzale. Gogoratzen dugu lurra, itsasoa, gure planeta babestu behar dugula; denen onurarako eginga delakotz eta geroko belaunaldietaz arduratu behar garelakotz.

Segi nazazu. Hara hirugarren mezua! Hiru aldiz Petrik erantzuten dio Jesusi « *bai maite zaitut* » zeren hiru aldiz Jesus ukatu zuen. Badakigu gaur egun Eliza kenka txarrean dagola, alde batetik gizartea gero eta geiaogo sekularizatua eta bestetik zariketa andiak bere barnean eta ez aski idekia, Aita sainduaren araberan.

« *Segi nezazue* » erranez bakoitzari Jesusek aterabide bat dauku proposatzen. Izan gaiten Jesusen jarraikileak, bihotzez, maitasunez. Har dezagun denbora Jesusen deia gure baitan barnatzeko. Abia gaiten mundu zabalera hor goitatzeko. Eta har ditzagun eskutan bere erreinuaren sareak, mundu berri baten sorarazteko. Jesusen txalupan denendako bada lan, elgertasunaren sarea, duintasunaren sarea, familien zorionaren sarea altxatzeko ; otoitzaren eta Elizaren sarea altxatzeko, denen beharra bada : emazte, gizonezko, haur, gazte, adineko, eri inbalier edo osagarri onekoak izan, elizakoak edo sineste gabekoak izan, borondate ona duten guziendako tokia bada.

Itsas misioan gauden ainitzi Jesusek erran zaukun « *Zoaz itsas zabalera eta jakinen duzue ean han nagoen edo ez !* » Itsas zabalera joan gira eta aitortzen dautzuet Jesus bera dugula atxeman uhainen artean ! Amen